

KANPOKO BIZITZA



(NERE ADISKIDE MAITE, *Mariche*- REN EGILLEARI)

Zenbaiten iritziyan
da gauza soso
kanpoko biziera
ain pakeosoa;
bada neretzat ez da
triste penosoa,
ezpada alai, eder,
atsegiñ, gozoa,
anchen pasa nainuke
bizitza osoa.

Ez da pake gozoa
emengo biziya,
aundi nai geiegiya
gauza itsusiya;
urrea dala buru
denen nagusiya,
gertatzen da alkarren
eziñ ikusiya,
emen dena da bulla,
gerra da guziya.

¡O! kanpoko bizitza
eder, atsegiña,
Uri-etakoakin

gozoz ez berdiña;
neri beti jaikitzen
zait arako griña,
¡O! lur Jaunak guretzat
ongarri egiña,
kantuz goititu eziñ
bainezake diña.

Argi urreetuz dira
azaltzen alayak,
errekacho, iturri-
chulo ta ibayak;
gizonaren izerdiz
moldaturik layak,
laborez ornitubak
malkar ta zelayak,
eta lorez janziyak
lur sarjin galayak.

Goiz asten dira chori
chikiyak kantatzen,
beren kontu pollitak
alkarri kontatzen;
gañoak erreplikaz
diranean jartzen,
asnasik ere iya
ez dutela artzen,
kantuz baitute lotan
daguena esnatzen.

Aize fiñ, dana guri
lorietan nasten,
¡o! zein atsegiñez dan
kanpoan asnasten;
ontaz barrenak ez du
guchi irabazten,
nabaitzen baita nola
dan lasaitzen asten,

kanpoak du persona
osasunaz jazten.

¡O! zer ederra gauza
oeri begira
egotea jaikirik
lenengo argira,
igotzea goizeko
preskuran mendira,
ematea lur lorez
apainduban jira,
¿onen kontu gozoak
erriyan non dira?

Gizonak gorde dedin
bullaren igasi,
zerupe artan dauzka
orrenbeste grazi;
kanpoak du kantuzko
koroï bat merezi,
iñon ez da arkitzen
an ainbat poesi,
bera edanaz nik an
nai bainuke bizi.

RAMON ARTOLA.

